

Irun, 2020-04-23

**EUKARISTI OSPAKIZUNA pandemia garaian Salle-enean hildako gure 11 Anaien
oroitzapenean.**

**CELEBRACIÓN EUCARÍSTICA DE NUESTROS 11 HERMANOS FALLECIDOS
DURANTE EL TIEMPO DE PANDEMIA EN LA SALLE ENEA.**

Anai Jose Roman Perez, Ikuslaria

Pazko-aldeko II. Igandea. Ebanjelioa: Jn 20,19-31

Ongi etorri guztiok gure Anaiak bihotzean izanik ospatzera goazen Eukaristia honetara.

Unidos a Jesús resucitado, celebramos el paso a la Luz, al Amor, y a la Vida de nuestros Hermanos: Mikel Esnaola, José Luis Pérez, José Inazio Arruti. Luis Berasategui, Pedro Alberdi, Sebastián Grandmontagne, Juan Teodoro, Jose Martín Esnal, Félix Malkorra, Koldo Sarasola, y José Luis Ortiz.

Berriro bildu gara Salle-enean pazko-esperientzia ospatzera, amaierarik ez duen Bizira igarotze-ospakizunera.

Guregan esperientzia gutxi dira maite dugun norbaiten heriotza baino esanguratsuagoak. Eta gaur ospakizun honek dimensio berezia du, hamaika Anaiei batera ematen diogun azken agurra baita. Eta zer Eukaristia baino egokiagoa azken agurra egiteko, Eukaristia izan baitute beraien kristau-bizieraren “iturburu eta jomuga”.

Gaur gogoratzen ditugu, pandemiak baldintzaturik bizi izan ditugun bi urte luze hauetan, etxe honetan hil zaizkigun Anaiak. Hauetako batzuk agian garrantzitsuak izan dira, oso garrantzitsuak, gure bizitzan, elkarrekin harreman estuak izan ditugulako, edota elkarren arteko lotura afektiboengatik edo elkarrekin partekatu dugun denboragatik. Horregatik, are gehiago sentitu izan dugu ezin ospatu izana haien Aitarengana igarotzea, denok nahi izango genuen bezala.

Hoy hacemos memoria de nuestros Hermanos que han muerto en estos dos últimos años en que hemos estado condicionados por la pandemia. Algunos de ellos quizá hayan sido importantes, muy importantes, en nuestra vida, ya sea por la intensidad de la relación, ya sea por el cariño y el tiempo compartidos. Y por eso sentimos, aún más si cabe, el no haber podido celebrar su paso al Padre como todos hubiéramos deseado. Hoy celebramos el paso a la Vida (con mayúsculas) de nuestros Hermanos y lo celebramos así, porque creemos que están en el regazo de Dios Padre. Podemos afirmar que en las vidas de todos nuestros Hermanos hay una convicción común: la esperanza de que, en Jesús resucitado, más allá de la muerte, hay vida. Una vida

diferente, pero vida. Y una vida que creemos que es para ellos, y desde el don de la fe confesamos que también será para nosotros, vida en plenitud.

Bizitzan zehar zuzenean esperimentatu ohi ditugu bizia eta herioa, alaitasuna eta sufrimendua, poza, maitasuna, topaketak eta baita gaixotasuna, zailtasunak eta galerak ere. Baino, zalantzak gabe, azken hogeita bi hilabete luze hauetan bizi izandako zirkunstantziek baldintzatu dituzte gure azken agurrik. Pandemiak gure harrokeria eta dena gure esku izatearen uste faltsua astindu digu. Eta gogorarazi digu absolutuaren erromes izatea dela giza izaera, ez absolutu izatea. Bizi izan duguna ez da oztopo izan Jainkoaren presentzia hautematen jarraitzeko. Gurekin izan da eta gure Anaiek haren maitasun-begiradaren babesean bizi izan dituzte azken uneak.

Cuanto hemos vivido no ha sido obstáculo para seguir percibiendo la presencia de Dios. Nos ha acompañado y ha hecho que nuestros Hermanos hayan vivido sus últimos momentos desde su amorosa mirada.

Bizitza etapen etengabeko jarraipena da, bakoitzta bere egoera bereziekin, bere ingurune propioarekin, berau osatzen duten pertsonekin. Eta horietako zenbait gogoratzen ditugu gaur, eta aitortzen dugu, gure zuntz intimoenetatik, oinordetza gisa utzi diguten oparia. *“Ez dago bizia ematea baino maitasun handiagorik”* eta gure Anaiak beren bizi osoa ematearen eredu izan ziren. Eta sekretu hau da haien utzi diguten Jainko-dohaina, gure bizitzaren indar eragilea dena.

En nuestros Hermanos descubrimos la grandeza del amor encarnado en las pequeñas cosas de la vida, en los gestos sencillos.... Es el motivo más profundo que nos inspira a vivir para Dios cada día. Cada Hermano se ha ido entregando poco a poco, con la cadencia de las cuentas de cada misterio del rosario, con el tacto firme, tierno, afectuoso, sobre cada uno de los nudos en la cordada lasaliana.

Garena, besteekin batera bizi izan dugunaren emaitza da. Horregatik, galera sentitzen dugu Anaia bakoitzaren heriotzan. Baino geuregana dezagun maitasunez, konfiantzaz, Jesusek erakutsi zigun argitasunez betea zen abandonu harekin.

Gure Anaien herentzia ikusita, haien galera irabazitzat jotzen dugu. Lurperatutako gari-alea da, fruitua ematen duena. Lekukoa pasa digute eta animoz aurrera jarraitzeko adorea ematen. Senidetasunaren lekuko hauen sorbaldan goaz aurrera eta besteekin batera bizi izan dugunaren fruitua izango gara.

En el Evangelio hemos escuchado que el Resucitado se apareció a sus discípulos y, con su saludo y su presencia, les ofreció paz y fortaleció su fe. Sin embargo, Tomás, que estaba ausente, no creyó el testimonio de sus compañeros y, siendo persona dada a lo concreto, necesitó vivir la experiencia de “tocar a Cristo”. En el ejemplo de Tomás, el mellizo, nos encontramos todos y cada uno de nosotros, buscando evidencias ante la fe cuestionada, asediada por los afanes particulares y sometida a los embates de tantos desafíos –algunos de ellos son tan cercanos en la geografía o en el tiempo que

sobre su mención y, además, los medios dan buena cuenta de ellos-. Es difícil creer, sin los demás, cuando se está ajeno a la comunidad. Pero no hay que desesperar.

Azkenean Tomasek ulertu zuen, bere lagunekin zegoenean, gurutziltzatua bera zela aurrean zeukana. Egiaztatu zuen aintzatua izan zela, Biziaren Jaunak arrazoia eman ziola porrot egin bide zuen bere asmoari, eta halaxe aitortu zuen, esanez: “*Ene Jauna eta ene Jainko*”. Ulertu zuen hora Jainkoaren Hitzar haragitua zela. Horrek laguntzen digu Jesusen dizipuluoi, gutako bakoitzari, Kristo bezala aitor dezagun. Esperientzia horretatik bizi behar dugu Erreinua eraikitzeko konpromisoa. Nor den Kristo eta geure alde zer egin duen ulertzen ez duenak ezin du Ebanjelioaren irizpideen araberako mundu senide-artekoago baten aldeko benetako konpromisoa hartu. Tomas, Kristorekin topo egin izandako esperientziak ukiturik, eraldatua gertatu zen eta oldartua bere bizitza berarekin aitortzeko bere bizia berpiztutako Kristo zela, Kristo Unibertsala.

Me imagino a Mikel, Pepe, José Inazio, Luis, Pedro, Sebastián, Juan Teodoro, Koldo, Félix, José Martín, y a José Luis haciendo desde su diferente realidad personal delante del Resucitado haciéndose la misma pregunta que Tomás y encontrando su respuesta en la experiencia personal de fe en su familia y en la mediación lasaliana trasmisida por los Hermanos de La Salle en las escuelas a las que asistieron y a la relación personal.

Gure Anaiek, Tomasen antzera, berpiztuaren esperientzia izan zuten, estilo profetiko garbi eta salletarrean, haur eta gazteei, batez ere behartsuenei, adi-adi begiratzerakoan.

Anaia hauetako bakoitzak erakutsi digu norbera ez zela Anaia bilakatu beste norbaiten erabaki batengatik. Barne-barnean dei bat entzun izan zuen, Jainkoaren ahotsa, aurrez ustekabeko bide batetik erradikaltasunez jarraitzeko interpelatu eta deitu izan ziona.

La luz en la que ahora viven por siempre nuestros Hermanos también se derrama en nuestros corazones y nos ayuda a comprender la grandeza de su amor, la dimensión de sus corazones.

Argi hori pizten da gure bizitzan inguruau ditugun pertsonenganako erruki- eta harrera-keinuak guregan sortzen diren bakoitzean. Bizitza erlijiosoaren xumetasun erradikalak, haiek bizitza osoan maitasun eta leialtasun handiz bilatu zutenak, lagundu egiten du gure bihotzean isiltasuna sortzen, non Jainkoak hitz egiten duen, dei egiten digun, interpelatzen gaituen eta bere maitasunaren dohainagatik eskertuta bizitza deitzen, beti bide berrieta, pentsaezineta, harrigarrieta beti.

Funtsean, gure fedeak badu apustu handi bati dagokion zerbait. Apustu egiten dugu biziaren alde, bizia dugula heriotzaren ondoren, bizi hori bete-betea dela, Jainkoak, Jesusen Abbak, ez gaituela betiko botata utziko, bizitza honek –batzuetan atsekabez eta saminez betea– zentzua duela, iparra duela, norabidea duela. Eta hori guztia,

Jesusen hitzaz, bere bizitzaz eta berpiztuta ikusi zuten bere dizipuluen testigantzaz fidatzen garelako.

No tenemos más a qué agarrarnos. Nuestra fe. Desde ella proclamamos nuestro derecho a la esperanza, a mirar a la muerte sin miedo y estar convencidos de que no es más que un paso –oscuro y complicado, pero paso al fin– a una vida mejor en la presencia del Abbá, el Dios de Jesús, el Dios del Reino, el Dios de la Vida, el Dios de nuestra esperanza.

Gure Anaien bizi bete-beteagatik ospatzen dugu Eukaristia hau, Esker-egintza hau, Pazko-aldi honetan. Berpiztearekiko topaketa-garaia da, bizian dugun itxaropen-garaia.

Esperientzia honetatik ziurta dezakegu hamaika Anaia hauek bete dutela beren Pazkoa eta bere heriotzaren ondoren Biziarekin, letra larriz, aurkitu direla. Heriotzak izena aldatu du eta orain "itxaropena" deitzen diogu. Esperantza dugu Jaiakoaren ahalmenean, denboratik eta espaziotik at bizia emateko gai den ahalmenean, mugie betetasuna eta tristurari pazko-poza emateko gai dena.

Cada persona tiene su propio viaje a través de las alegrías y penas, de la salud y de la enfermedad. Estos 11 Hermanos, en su itinerario lasaliano, han sido un ejemplo de cómo podemos afrontar lo que la vida nos depare y sentir con valentía nuestros dones y nuestras limitaciones de una manera que honren el regalo de la vida que se nos ha dado.

Pazkoa ospatu dugu. Jesusek, Berpiztearen bitartez, erakusten digu bizitza aukera bat dela, bizitza egunez egun aurre egin beharreko erronka dela; gure bizitza eta historia, apala eta distirarik gabea dirudien arren, besteentzat altxor bat izatera hel daitekeela.

Que el ejemplo de nuestros Hermanos nos ayude a aumentar la confianza en el Dios de vivos, que da pan a los hambrientos, que hace importante a los sencillos, que da la vida a los que mueren y que acoge y perdona a todos.

Gure Anaien oroitzapenak lagun gaitzala bizitzari itxaropenez begiratzen eta gure bokazio eta salletar misioa leialtasunez eta entrega eraberrituz bizitzen.

Egun handira arte, Anaiok!